

Gure belaunaldiak ez zuen euskal eskolarik ezagutu

Edorta Jimenez

Beste ezertan hasi edo sartu baino lehen, argi gera bedi gure belaunaldiak ez zuela euskal eskolarik ezagutu, ezta ere ikastolarik apenas, eta, ondorioz, euskaldun analfabeto hazi gintuztela gu gehienok. Hara non oster, euskaraz idazten eta irakurtzen dugun, alfabetizatu egin garela seinale. Alfabetatu ere, zelan alfabetatu garen da erabakiorra, hizkuntza normaldu –eskola sistemadun- direlakoetan ezta usaindu ere egiten, ez dituztenak eta bost pairatzen ditugu-eta guk.

Horrela bada, gure alfabetizazioaren ibilbideak gaur mahai honen gainean jarriko diren gaiekin zerikusi zuzena du, nik uste.

Ganorazko hiztegirik gabe, taxuzko metodorik baga, norberak ahal izan moduan ikasi dugu guk gehienok –berrogeita sei urte bete-ko ditut aurtent- euskaraz irakurtzen eta idazten. Ez da denon kasua, haatik. Baziren euskararen gorabeheretan adituagoak zirenak gu

baino, batik bat abade eta fraide ikasten ibilitakoen artean. Nork egin bestela irakasbide laburrak, euskalduntzen joateko metodoak, hitz egiten erakustekoak edota, Etxepareren hitzak gaurkotuz, 'neska, edo mutil, jagi hadi!' esango zuenik? Bakoitzari berea, hori da legea.

Euskara Baturako lehenengo erabakiak datozenean nik neuk hamabost urte ditut. Euskaraz irakurtzen hastean Mogel eta Aresti dira nire lehenengo idazleak; beraz, bat-batean eta eskola-esperientziarik gabe, horra nire begien aurrean eredu bi, hain bi ze! Arestik Mogeli zor ziona zor ziola ere. Gero, Bilboko Verdes liburutegia eza-gututa gero, gerta zekidakeena, eta askotan gertatu ohi zitzaidana, bada izaten zen aldi berean deskubritu ahal izatea Arrieta eta Axular, adibidea alfabetoko lehenengo letratik hasita. Hau guztiau neure euskalkian eta neure kalean berraragitzeko ahaleginarekin batera.

Laburbilduz, sasoi nahasietan hazi ginen. Hain sasoi nahasiak, tantai ala bonsai hazi garen ez dakigu. Euskara batuaren gudaostean –batuarena gudatea izan baitzen-, arauak lau eta zalantzak hamalau, gure benetako neurriak ezagutzen ez ditugulakoan nago ni.

Egungo eskuliburuak, edo JJren broma makraboek, zein hizkuntzatan idaztea hautatu genuen eta horretarako izan genituen arrazoiak ahanztarazi gura dizkigute. Barne sendimendu bortitz eta maitasunezko batek gidaturik izan ez bazen, zelan hasi ginen euskaraz idazten ba? Ni naizen marxista apur honek faktore subjektiboa historiaren motorretako bat dela uste du.

Literatura berriaren lehen uhineko aparrek liluraturik ekin nion nik euskaraz idazteari. Haatik, politikaren arloko konpromezuak ere izan zuen erabaki horretan zerikusirik. Ezer berririk ez, hala bada. Gure historian barrena behin eta berriro literatura eta herrigintza –berba honi testuinguru honetan politika berbari baino egokiago deritzot– elkarri uztarri berean loturik agertzen zaizkigu.

Gure alfabetizazioa eta gure ikaste-bideak zeintzuk izan diren argitu ostean, eta antolatzaileek abiaburutzako jarri diguten lehenengo galdera modukoari erantzuten hasteko (*Idazle, kreatoraile lana gauza-tzean, zein neurritaraino aldatzen da zure erregistroa kazetaritzako berbetatik?*, dioskue, erantzuteko) euskal kazetaritzaren aroak aipatzea ere egoki eta argigarri letorkiguke, gaur dauzkagun hedabide normalduak eta askotarikoak, urriak izanik ere, ez baititugu historian atzera begira inoiz eduki, izan ere ez baitira izan.

Horra hor **Euskaldunon Egunkaria** lehenik eta behin, idatziari zuzenen eragiten diona bera delako, eta horra hor irrati-telebistak bigarrenik, mintzatuan eragin itzela daukatelako (diodan bide batez horretan jokatzen dela euskararen gal ala irabaz borroka). Horiakin batera, horra herrietako aldizkariak eta, **Jakin** bezala, maila jasoagoak; mutur bi horien artean zientzia, erlijioa eta beste hainbat gai-arlotan argitaratzen direnak dagoz. Beraz, kazetaritza esatean zein kazetaritza mota, arlo edo mailaz dihardugun argitu beharko genuke.

Gogoan izan beharko genuke ostera Koldo Mitxelenaren euskarazko lan asko kazetaritza lanak direla, esan nahi baita, kazetetan argitaraturikoak; halaber Etxepare medikuarenak eta beste askorenak. Hori argiturik, eta jardunaldi hauen antolatzaileetako bat Rikardo Arregi Kazetaritza Saria irabazita dagoela, hain zuzen ere Mitxelenaren oroiz eginiko kazetaritza-artikulu bategatik, gogorarazi eta gero, kazetaritza hitza bera ere zehaztu egin beharko genukeelakoan nago. Koldo Mitxelenaren artikuluak kazetetan argitaratuko ote genituzke gaurregun? Zeinetan? Egungo *Egan* berrituan? *Jakinen*?

Kazetariak, idaztean, giza multzo ahalik eta zabalena izaten ei du gogoan, eta ez dut ukatuko Mitxelenaren garaian euskaraz irakurtzeko gai zirenen multzoa zuela hark gogoan. Hari horretatik tiraturik inora goazenik ez dut uste, hala ere. Beraz, goazen geure harira, hau

da, gaur egungo euskal hedabide zabal eta egunerokoetara, edo, luze-enez jota, asterokoetara, hori baita gaia, nik uste.

Har dezagun *Euskaldunon Egunkaria*. Hor ere orrialde guztiak ez dira elkarren berdinak kultur edukinen aldetik. Hala bada, unean unean kazetaritzako zein ataletan dihardugun da gogoan izan beharrekoa, ze, hedabide bereko orrialde edo ordu –irratia-ren kasuan ezberdinetan ere, edukinak eta, beraz, erregistroak aldatzen dira. Literaturaz diharduten orrialdeak kiroletakoak baino hizkuntzaren aldetik jantziagoak izaten dira edozein egunkaritan.

Alabaina, orain artekoa denontzat lar ezaguna ere badela ziur, eta luzatu zaigun galderari erantzutearren, baietz diot; aldatu egiten da bai nire erregistroa kazetaritzan (oraindio ez dut zehaztu abiaburutzat hartu beharko genukeen *zero erregistroa* zein ote den). Adibideak jarriko ditut, aurrera ganoraz egiteko bidea berori delakoan nago eta.

Argia aldizkarian hasi nintzen ni benetan kazetaritzan, elkarrizketak eginaz hain zuzen. Zereginak alde bi zituen. Lehenengo elkarrizketa paperera aldatzen nuen. Hitzak eta lerroak ondo neurtuta, han hasten nintzen titularra asmatu guran. Testuan nirea zenik ezer ere sartu barik, titularretan asmamena ipintzen nuen jokoan. Joko hori olgeta izaten zen, poesiaren arloko irudi-jolasetarako tarte polita eskaintzen zuena. Laburtuz ba, kazetaritzako titularrek, asmamenaren aldetik, olerkiaren premia izaten dute. Bide horretan lar urrun jo barik, jakina. Dena dela, titularretan zilegi izaten den erregistro aldaketa horrek irakurleak hezten eta ohitzen irakasten duelakoan nago. Horra, ba, lehenengo erregistro aldaketa kazetaritzaren beraren barruan.

Bigarren adibide bat jarriaz esango dut kazetaritzan egin dudana azken lana, **Gara** egunkarian egiten segitzen dudana alde batera utzita, **Jakin** aldizkarian izan dela.

Aldizkaria nori zuzendua den gogoan, hor idazteak ere asmamena eskatzen du, irudien bilaketan batez ere. Beraz, dohai hori –asmamena– sakratua da niretzat, testu jagietarako ezezik gauzarik xalo eta xumeenak egiteko ere behar baita. Hor idaztean ostera beste askatasun bat izaten nuen, hiztegiaren arloan gehien bat, bidenabar aipatu nahi dudala hor dugula bigarren eta hirugarren erregistro aldaketa, hain zuzen ere, lexikoaren arlokoa eta irudien aldetikoa.

Lexikoaren erregistro aldaketa diot, ze kazetaritzako titularretan kazetariok ez daukagu denek ezagutzen ez duten berbarik sartzerik, *denek* osatzen duten multzo horren zehaztapena batez besteko modu batean eginda. Irudien aldetiko erregistro aldaketa diot, mundu ikuskeraren eta munduaren ezagumenaren aldetik eruditoagoak ei direnei zuzenduta doalako aldizkaria.

Ikusten denez, orain arte ez dut laugarren erregistro aldaketarik aipatu, hain zuzen ere, joskeraren arlokoa. Sortuko da baina gai hori ere. Orain kontua da *Egunkaria* eta *Jakin*, *Jakin* eta *Egunkaria*, mutur bi horien artean egin behar izaten dugula leku kazetaritzan, munduko kazetaritzan ohikoak direnak gurera ere ekarriz, hain zuzen ere, *batez bestekoan denek* ulertuko dituzten hitzak munduko edozein gai, gertaera edo albiste kontatzeko. Ez da zeregin makala. Ordaina ere ez da nolana hikoia. Zeregin hori estiloz eginez gero, kazetaritza literatura izatera igarotzen da eta, horretara, kazetaria bera literaturgile dugu. Estilo egite horretan joskera eta testuaren antolamendua agertzen zaizkigu funtsezkoen, derrigorrez.

Kazetaritza literatura izatera ailega daitekeela esan dut, bai, gogoan izanik literaturan, kazetaritzan legez, arloak eta erregistroak daudela. Zein literatur genero den landu nahi duguna, halako edo bestelako erregistroa hartu beharko da. Genero beltzak askotan hartu izan du kazetariren bat protagonista errola betetzeko. Erabaki horren ondorioz kazetaritzako lanak bailiran egindako eleberri beltzak ditu-

gu; aipagarriena, Truman Capoteren 'Odol hotzean'. Beraz, euskal kazetaritzaren arloetako batzuek literaturgintzan eragina izaten dihardutelakoan nago. Eragin hori areagotu egingo dela esatea ez da ausar-keria, ostera. Baina, oro har, kazetaritzako hitzek, lexikoak eta abarrek duten maiztasun edo aldirokotasunak badu eraginik literaturan. Irakurleen hitz, joskera eta halakoen altxorra, hizkuntza normalduetan, kazetaritza lanak irakurriaz eta entzunaz osatzen baita

Alde honetatik begiratuta, antolatzaileek luzatu diguten bigarren galdera (*Zenbateraino jasotzen duzu Axularren edo autore klasikoen hizkera? Zenbateraino baliatzen zara haiek sortutako ereduaz? dioena*) kazetaritzaren esparrutik kanpo geratzen zait. Hala ere, Ipar Euskal Herriko kazetetan Axularren eredu present dagoela, ezin uka.

Alfabetizazio-bideen gainean jardutean esan dudanez, Axular-eta euskal idazle zirelako irakurri nituen nik. Hasiara batean behintzat. Alde horretatik, euskal idazle zahar guztiak klasiko ziren guretzat. Klasiko izate horren barruan estiloak eta estiloak dagoz, ostera, eta gaurregun jatortasun bila jotzen dut nik neuk klasikoetara, egia bada ere horretarako astia behar izaten dela, eta errearen pareko ei den gai horren eza gaitz hedatua dela gure artean.

Klasikoetan bilatzen dudanez jatortasun hori zertan ote den azaltzeko, esango dut barru-musika berezko eta euskalduna dela bilatzen dudana. Hitz egoki josiei darien musika isila bilatzen dut, auzoerdarek menderaturiko gure mundu honetan (hain menderaturik gaitu gaztelerak ze, berarentzat bakarrik dugu orain *erdara* berba).

Zehatzago esanda, Axularrengan berezko jario eta hitzen arteko musika isil dirudiena, joskera zehatz eta oso landu batean oinarritzen da. Joskera horren lekua, berez, filosofia eta beronen adarretako gaiak –Humanitateak– lirake, ez baita ahaztu behar liburuaren mamia den erlijio gaia, zelanbait, adar horretakoa dela.

Egin ere, joskera klasiko hori eredutzat hartuta egiten dira filosofiazko liburuak egun. Eredua zuzen erabiltzen denentz? Irakurri berri ditudan filosofi liburuak irakurrita, zalantzan nago.

Joskera-lana topografi lana da; mapak osatzea da. Hitzak jostean gogoan izan behar ditugu euron arteko loturak, eta hau esatea arrunteria dela pentsa daiteke. Ez nator bat, ostera. Lanik gaitzena esaldia-
ren barruko elementuen ordena da, lehenik; bigarrenik, esaldien arteko loturak egiteko zeregina ere gaitza da. Anaforikoak erabiliz joskeraren arloan euskarak dituen oztopo nagusietako bat konponduta dagoela uste dukeenak, txarto. Itxuraz erromantzeen joskeraren berdintsua den horrek lan zehatza eskatzen du osagarrien ordenaren aldetik, ohiko bizkaierak, itxura batean horiek gabekoa den euskalkiak, eskatzen duen ber.

Niretzako daukat ostera bizkaierak anaforikoak berez eta aspaldi onartu zituela, zaharrak direla. Horietako hiru aipatuko nituzke: *ze, halan da ze, baze*, hirurak ere *ezen, hala da ezen, bada ezen*, klasikoe-tatik oso hur dagozenak, berdin-berdinak direla ez esatearren. Une honetan hizkuntzak dituen korapilo nagusiak ez dautza joskera eredu bi horien artean hautatu beharrean. Filosofiaren arloan pentsakera autonomoa izan nahi duen edozeinek hizkuntzaren erabilera sendoa, fuertea, eskatzen du. Hizkuntzaren barrutik egin behar da filosofia.

Ni neu larriatuago nauka topografia hori zehatz eraiki ezinak, ereduak baino. Jakina, eruedetan erudu, Axular hartuko nuke. Alde horretatik, ez da ahalegin makala Pamielak egin duena gazteei zuzenduriko *Axular laburtua* argitaratzean. Horren premia askok ikusten izan dugu. Baina tira, honezkero behin baino gehiagotan aipatu dudana alfabetizazio bidera joko ez dudala zin egiten dizuet.

Orain ostera, luzatzen noa eta, antolatzaileek egin diguten hirugarren galderari eutsi nahi diot.

Noiz eta zertarako jarraitzen diogun ahozkoari eta noiz eta zertarako eredu idatziari, horra galdera. Erantzuna atoa ematekoa da. Nik neuk berezkotasuna bilatzen dut ahozkoan.

Kontua da ahozkoa esatean euskalkia esaten dugula gehienetan. Beraz, baturako erabili diren ereduetatik zenbat urrunago euskalki jakin bat, orduan eta gaitzago egiten da euskalkiaren mamia batuaren azalaz janzteia idatzira jotzean. Beraz, bizitasuna galtzeko arriskua hor dugu, lehenik eta behin. Hala ere, arazoa korapilotsuagoa da. Inguruko presioaren presioaz, joskera kaltetu egin zaigu, hala batuan zelan euskalkietan ere, hau egiago izanik juntagiluen arloan. Demasako 'orduan' batetik, txitean pitean esaten den 'osea' bestetik, ordainekoren baten eskean dabilen 'eske' hori nogura, joskera-elementu ezin jatorrago batzuen ordeztatzen datoz.

Aspaldion joskerara begira askotan egiten dut gogoeta ahozkoa dela eta, uste dudalako literaturarako soluziobideak eskaintzen dituela. Ahozkoaren funtsa diren esakunetan gauzaturik geratu dira soluziobide horiek. Bat edo beste aipatzearen, hona erdarakadaren baten ordaina, diodanaren argigarri:

Non egiten den lana, halan kobratzen da.

Zorioneko 'según' hori ordezkatzeko. Eta beste makina bat ere bada. Gotzon Garateren lanetara jotzea dauka interesaturik dagoenak.

Nire ustez interesgarriena zera da, ahozkoak, esaldiak zatikatuz, hautsi egiten du gure erlatiboaren luzerako joera kasik infinitorainokoa hautsi. Alde horretatik ere beste hizkuntza batzuen estandarrera hurreratzen da.

Esandakoak esanda, ez dut uste azkenarreko galderak (*Euskara batuan idazten duzunean, zein paper betetzen du euskalkiak eta zein*

estandarrek? Euskalkiko berba eta perpausek estandarrean maila berera -ko dira ala bata maila jasorako da eta bestea kolokialerako?) ustebakotan harrapatuko nauenik.

Hasteko, *estandar* zeri deritzogun argituz ekin beharko genioke gogoeta gune honi, estandar bakarra barik estandarrek baitagoz, pluralean.

Euskaldun alfabetatuen arlora mugatuz, jakingarria litzateke multzo horretako zenbatek duten jatorrizko euskalkiren bat ezagutzea, aipatzen dudan jatorrizko euskalki hori izan ezean gauzak askoz ere garbiago dagoz eta.

Estandar arruntena irrati-telebista publikoak erabiltzen duena da. Estandar nahikoa urria, baliabide gutxikoa eta adierazkortasun bila españolera jotzen duena.

Estandar jasoago baterako, horra hor *Euskaldunon Egunkariak* edo *Argiak*koa, bat bera ala bi diren esaten ez dakidan arren. Estandar horretan euskalkien ekarpena handia da. Kazetarien oilategian idazle asko sartu dira azeri, eta, jakina, azeriok, edo idazleok, euren ekarpen txoak egiten dituzte. Hemen inoren izena emon barik, hor dagoz aspaldion buztanikarak legez ugaldu diren ‘hori jakitera ez nuen egingo’ eta ‘hori esaterako egina zegoen’ modukoak, hain zuzen ere, orain asko prentsan behintzat erabiltzen ez zirenak.

Azkenean maila jaso, egiteke dagoen maila hori, ez da leku bakarrean sortuko. Hizkuntzaren barruko eztabaidaren ondorengo izango da eta, igoal, literatur lan handi batek emongo du, edo igoal ez. Jakina, ba omen dugu literatur lan handi hori. Haatik, lan handia ei den hori literatur gorapilo askorik gabeko batean egina da, euskal irrati-telebistan erabili ohi duten estandarren barruan datzan euskalkitik oso gertu. Beraz, maila jasorako konponbiderik ez.

Eta honezkerok leher eginda nagoen arren, hona gogoeta batzuk azken galderaren inguruan, lehenik eta behin galdera bera irakurtzea komeni bada ere.

Euskalkian euskalki literarioan –idatziz gero-, zein literatur motata –rako aurkitzen duzu euskalki hori egoki?, dioskue antolatzaileek. Labur erantzungo dut.

Euskalkiaren gorabeheran nire eskarmentu bakarra Gernikako *Deiadar* aldizkarian izanikoa da, hurrengo lerroetan azalduko dudana.

Aldizkariko zuzendaria Joseba Arrutiri estimu handia nion, lehenaldian esanda, aspaldion ikusi ez dudalako, beste barik. Beraz, gogotan hartzen nituen haren iritziak, hausnartuak zirelako uste osoan. Iritzi horien artean aldizkaria, non-eta Gernikan, batueraz egitea zegoen. Errespetatu egin nuen. Azken batean herriko aldizkarian batua artikuluen azal eta norberaren euskalkia barruko mami izan litezkeela uste izanez gero, joskeran, lexiko hautaketan eta halakoetan herriko berbakerara hurreratzen saiatu nintekeelakoan. Haatik, euskalkiak inon lekurik badu, herrietako aldizkari, irrati eta telebistetan du lekua.

Nire iritzi honen aurka esan daitekeena da, besteak beste, egungo irakurle alfabetatuek batua ezagutzen dutela, nazioaren hizkuntza eraiki gura bada tokikokeriak baztertuz egingo dela, eta abar. Literaturaren aldetik ostera beste jakingarri batzuk hartu beharko liriteke kontutan. Behinena, hizkuntza biziak dakarren bizitasuna. Jakina, bizitasun hori batuak ere ukan lezake, ukan, eguneroko bizitzan erabiltzen dutenen ahoan. Ba ote duen, ez ote duen, ez da norberak iritzi zuzen bat erraz osatzeko moduko kontua.

Gernikako aldizkari berean zoko bat eskaini zidaten, neuk gurago nuena idatz nezan. Bizkaieraz egitea erabaki nuen. Eta ez zen langintza

erraza izan. Norberaren bizkaiera ere idatziak behar dituen arauen menpe ipini behar da eta.

Bestela, literatur lanetan batua egiten dut idazten dudanaren azal, eta saiatu behintzat egiten naiz bizkaiera mami egiten. Jakina, gure alfabetizazio bidera jo beharko dugu berriro, bizkaiera zer den lar zehatz ez dakidala aitortzeko. Dena dela, nire etorri-iturrietako bat hitzak diren aldetik jotzen dut bizkaierara. Txikitako berbek iturria askatzen didate, zelanbait esan.

Laburtuz, euskalkia literatur premien mende daukat nik neuk. Literatur premia horietako bat irakurleengana iritea da, jakina. Gure hizkuntzaren arazo nagusia hiztunen multzoaren urritasuna da. Erabakiak egin behar izaten dira, gogorrak askotan, etorri-iturri izan dudan berba, joskera, nahiz irudiaren azala baztertu eta batuko jantzieta jo behar izaten baitut behin baino gehiagotan. Adibidez, *Ezeixu urten txotxotxu*, esaten zidan amamak.

Bere horretan idatzita, nork ulertuko? Salbatu, oster, *urten* eta *txotxotxu* salbatu ditut. Eta horra nire zeregina, berbak salbatu, neure burua salbatzeko. Bide batez joskeraren arloko zeozertxo ere salbatzen badut, ni pozik. *Baleen barbaroa* dago nire pozaren azken testigu. Oraingoz. Eskerrik asko.